



Zerbitzuaren proposamena.

Prozedura: Dirulaguntzen deialdia eta emakida.

Gaia: Nekazal ustiakuntzak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak 2023.

Dokumentua nork sinatzen duen: Idazkariak.

ZERBITZUAREN PROPOSAMENA

Udal honen Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan, dirulaguntza eta laguntza hauek ematea aurreikusten da:

DIRULAGUNTZAREN DATUAK	Nekazal ustiakuntzak sustatzeko eta garatzeko dirulaguntzak.
Gaia	Hirigintza
Eremua	Udalerrikoa
Erakunde deitzailea	Alkate-Udalburuak
Onuradunak	Udalerri mailan gauzatzen diren nekazal eta abeltzain ustiakuntzen hobekuntzak eta eraikin berriak, halaber nekazal eta abeltzain ustiakuntzen jabeen ohiko etxebizitzaren eraikitzea.
Xedea	Nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan hobekuntzak edo eraikin berria egiteko obrak diruz lagundu daitezke, udalerrian bertan eginez gero, bai eta ohiko etxebizitzaren eraikuntza ere, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustategietan titularrena baldin bada.
BDNS Kodea	
Aurrekontu partidaren zenbatekoa	3.000,00 € (412.770.000)

Udalbatzak, 2013ko urtarilaren 29an egindako bilkuran, hasiera batean onartu zuen udalerriko nekazaritza eta abeltzaintzako ustategiak sustatu eta garatzeko dirulaguntzak arautzen dituen ordenantza, eta behin betiko onartu zen iragarkia Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean argitaratu zenean, 2013ko ekainaren 21ean.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren 23. artikuluaekin bat etorriz, eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 58. artikuluaekin bat etorriz, zerbitzu honek proposatzen du aipatutako dirulaguntza emateko deialdia onartzeko izapideei ekitea.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEA